**Laugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmenaren iraunaldia izenpetzen denetik 2011ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

**Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea.**

Jarraipen batzordea sortuko da, eta kideak ondokoak izango dira: Arabako …..................Federazioaren lehendakaria, edo berak eskuordetzen duena, federazioaren ordezkaritzan, eta Kirol Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetzen duena, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuaren ordezkaritzan. Jarraipen batzordeak arazoak eta gatazkak ebatziko ditu.

**Seigarrena.- Deuseztatzeko zioak.**

Hitzarmen hau izenpetzen duten aldeentzat, bertan jasotzen diren klausulak ez betetzea izango da hura deuseztatzeko arrazoia, baita haren izaeraren ondorio den eta izenpetzaileek ituntzen duten beste edozein ere.

Zehatzago esanda, II. eranskinaren bigarren paragrafoan aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, hitzarmenak deuseztatu egingo dira, eta gutxieneko ekarpen gisa jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Horrekin guztiarekin ados daudela agertzeko, hiru aletan izenpetzen dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

Malentxo Arruabarrena Julián andrea, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

Izena:…………………………………………………………….............

Arabako ……………………………....... Federazioaren ordezkaritzan.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**2013**

**148/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa, Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea partzialki behin betiko onartzen duena.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2010eko abenduaren 24an eta 29an, Aguraingo Udalak bidalitako ofizioak (sarrera erregistroko zenbakiak: 20.860 eta 21.089) jaso ziren. Ofizio horien bidez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea bidali zitzaion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

2011ko martxoaren 4an (sarrera erregistroko zenbakia: 3.723), beste ofizio bat jaso zen, eta, bertan, 2011ko otsailaren 25ean eskatu ziren agiri osagarriak bidali ziren, plan orokorrari buruz. Halaber, 2011ko martxoaren 14an, 2011ko martxoaren 10ean eskatutako agiri osagarriak jaso ziren.

Bigarrena.- Espedientea osatzen duten agirien helburua indarrean dauden Arau Subsidiarioak eta Arau Subsidiarioen gainean orain arte onartutako aldaketa guztiak ikuskatzea da. Espedientea aztertuta, hurrengo funtsezko egitateak ondorioztatzen dira tramitatzerakoan:

A) Plangintzako irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak ezarri ondoren, eta 2002ko apirilaren 30ean horien aurrerapena jasota, Udalbatzak, indarreko hirigintza legerian xedatutakoaren arabera, berau argitaratu zuen hogeita hamar egun balioduneko epean, 2002ko ekainaren 10eko 65. ALHAOn eta 2002ko ekainaren 5eko “El Correo” egunkarian, bai eta udaletxeko iragarki taulan ere.

Jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako 46 iradokizun eta bestelako aukerak aztertuta, Udalak, 2002ko azaroaren 27ko osoko bilkuran, plan orokorreko irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak berretsi zituen, zenbait aldaketa eginda.

B) Udalak eskatuta, Herri Lan eta Garraio Sailak txostena bidali zuen Arabako Errepideen Plan Integralak (AEPI) udalerrian aurreikusi zituen jarduerei buruz. Era berean, 2008ko martxoaren 27an, Ingurumen

**Cuarta.- Duración del Convenio.**

La duración del presente del Convenio, será desde la firma del mismo hasta el 31 de Diciembre de 2011.

**Quinta.- Comisión de seguimiento.**

Se crea una comisión de seguimiento formada por el Presidente o Presidenta de la Federación Alavesa de ………………………........., o persona en quién delegue, en representación de la citada Federación y por el Jefe del Servicio de Deportes, o persona en quién delegue, en representación del Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Álava, que se encargará de la resolución de los problemas y conflictos que puedan acontecer.

**Sexta.- Causas de resolución.**

Son causas de resolución para las partes firmantes del presente Convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo y cualesquiera otras que, derivadas de su naturaleza, sean contempladas por los firmantes del mismo.

En particular, la no presentación de la documentación señalada en el apartado segundo del Anexo II, dará lugar a la rescisión de los convenios, iniciándose el procedimiento de reintegro de las cantidades percibidas como aportación mínima.

Y en prueba de conformidad, lo firman por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha del encabezamiento.

Dª Malentxo Arruabarrena Julián, Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava

D./Dª …………………………………….....................................

En representación de la Federación Alavesa de.…………………......

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**2013**

**ORDEN FORAL 148/2011, de 28 de marzo de aprobación definitiva parcial del expediente de Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Salvatierra.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fechas 24 y 29 de diciembre de 2010 y números de registro de entrada 20.860 y 21.089 se recibieron oficios del Ayuntamiento de Salvatierra mediante los cuales se remitía el expediente de Plan General de Ordenación Urbana con el fin de que le fuera concedida su aprobación definitiva si procediera.

Con fecha 4 de marzo de 2011 y número de registro de entrada 3.723 se recibió un nuevo oficio remitiendo la documentación complementaria de dicho Plan General, que fue solicitada en fecha 25 de febrero de 2011, y con fecha 14 de marzo, la que fue solicitada el 10 de marzo de 2011.

Segundo.- Los documentos que componen el expediente tienen por objeto la revisión de las Normas Subsidiarias vigente y todas sus modificaciones aprobadas hasta la fecha y, de su examen, se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) Una vez elaborados los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales del Planeamiento, y recibido el Avance comprensivo de los mismos en fecha 30 de abril de 2002, la Corporación procedió, de conformidad con lo dispuesto en la legislación urbanística vigente, a su publicación por un periodo de treinta días hábiles en el BOTHA número 65, de 10 de junio de 2002 y en el diario “El Correo”, de 5 de junio de 2002, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Analizadas las 46 sugerencias y alternativas formuladas durante el plazo de exposición al público, el Ayuntamiento, en la sesión de fecha 27 de noviembre de 2002, confirmó los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales del Plan General con diversas modificaciones.

B) A solicitud del Ayuntamiento, el Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes emitió informe sobre actuaciones previstas por el PICA en el municipio y el Departamento Foral de Medio Ambiente

Sailak aurretiazko txostena bidali zuen, Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriko iraunkortasun printzipioak zehaztu eta ingurumen irizpide estrategikoak adierazteko, eta plan horretako Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuari buruzko Azterlanean agertu behar den zehaztasun maila eta zabaltasuna ezartzeko.

C) Udalak, 2008ko irailaren 24ko ezohiko osoko bilkuran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedienteari eta haren ingurumen eraginaren aurretiazko txostenari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, bai eta espediente hori bi hilabetez jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2008ko urriaren 15ean, 118. zenbakia), “Diario de Noticias de Álava” egunkarian (2008ko urriaren 15ean), “El Correo” egunkarian (2008ko urriaren 15ean) eta udaletxeko iragarki taulan.

D) Udalak, 2008ko azaroaren 26ko ohiko osoko bilkuran, informazioa jendaurrean jartzeko epea 2008ko abenduaren 31ra arte zabaltzeko erabakia hartu zuen. Ondorioz, erabaki hori argitaratu zen ALHAOn (2008ko abenduaren 10ean, 141. zenbakia), “Diario de Noticias de Álava” egunkarian (2008ko abenduaren 2an), “El Correo” egunkarian (2008ko abenduaren 3an) eta udaletxeko iragarki taulan.

E) Jendaurrean egon zen epean, 80 alegazioa aurkeztu ziren. Plana idatzi zuen taldeak horren gaineko txostena egin ondoren, Udalbatzak ebatzi egin zituen eta, alegazio batzuen ondorioz egindako aldaketak ez zirenez funtsezkoak, behin-behinean onartu zen Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea, 2009ko abuztuaren 4ko ezohiko osoko bilkuran.

Hirugarrena.- 183/2003 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren prozedurari buruzko ingurumen eraginaren behin betiko txostena egin zuen, 2010eko maiatzaren 21ean.

Laugarrena.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko osoko bilkurak espediente horri buruzko txostena eman zuen, abenduaren 22ko 6/2010 bilkuran.

Bosgarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluko 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak martxoaren 22ko 2/2011 bilkuran espediente honen gaineko txostena egin zuen.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espediente hau Aguraingo plangintzan indarrean dauden arau subsidiarioen eta orain arte onartutako 19 aldaketa zehatzen berrikuspena da. Arau subsidiarioak, izan ere, 1992ko martxoaren 10eko 133. Foru Aginduan onartu ziren behin betiko eta indarrean daude 1995ko azaroaren 13ko 134. ALHAOn argiratu zirenetik. Agiriak egitura zuzena dauka eta, orokorrean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean zehaztutakoa betetzen du.

Bigarrena.- Deskribapena eta helburua – Agurain udalerria Arabako Lautada eskualdearen ekialdean dago eta Erdialdeko Arabako Arlo Funtzionalaren parte da. 37,8 km$^2$-ko hedadura du.

Hiriaren egitura erdigunean oinarritzen da. Hiriko egoitzen kokagune nagusia Agurain da eta bigarren mailako lau alde daude: Alangua, Arrizala, Egileor eta Opakua. Biztanle kopurua 4.802-koa da, 2010ean.

Epemugara arte (2019) 2.338 etxebizitza gehiago egon daitezke, hau da, guztira 4.188 etxebizitza. Hori horrela, etxebizitzako 2,30 biztanle daudela kontuan hartuta, 4.188 etxebizitza x 2,3 pertsona etxebizitzako = 9.632 pertsona.

Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Partzialak zenbait irizpide ezartzen ditu, Arabako Lautada osatzen duten lurralde zatietako erdiguneak garatzeko. Horren barruan, jarduera ekonomikoko lurzoruen ekimenak N-1 inguruan kokatu behar dira eta Aguraingo erdigunean garapen berriak sartu, lurraldearen pisua eta hierarkia indartu eta finkatzeko, Erdialdeko Arabako hirien sisteman eskualdeko buru izan dadin.

emitió, a su vez, el 27 de marzo de 2008, informe previo relativo a la definición de principios de sostenibilidad e indicación de criterios ambientales estratégicos del nuevo Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Salvatierra, determinación de la amplitud y nivel de detalle de la información que ha de constar en el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental de la redacción de dicho Plan.

C) En sesión extraordinaria de fecha 24 de septiembre de 2008, el Ayuntamiento acordó aprobar inicialmente el expediente del Plan General de Ordenación Urbana y el correspondiente informe preliminar de impacto ambiental y someterlo a información pública por el plazo de dos meses, haciéndose efectivo mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA número 118 de 15 de octubre de 2008, en el periódico “Diario de Noticias de Álava” del día 15 de octubre de 2008, en el periódico “El Correo” de 15 de octubre de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

D) El Ayuntamiento en sesión ordinaria del día 26 de noviembre de 2008 adoptó el acuerdo de ampliar el plazo de exposición pública hasta el 31 de diciembre de 2008, lo que se hizo público en el BOTHA número 141, de 10 de diciembre de 2008, en el “Diario de Noticias de Álava” de 2 de diciembre de 2008, en el diario “El Correo” de 3 de diciembre de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

E) Dentro de los plazos de exposición al público se presentaron 80 alegaciones que, tras ser informadas por el equipo redactor, fueron resueltas por la Corporación y considerando que las modificaciones producidas por la estimación de varias alegaciones no eran sustanciales se acordó aprobar provisionalmente el expediente de Plan General de Ordenación Urbana en sesión extraordinaria de fecha 4 de agosto de 2009.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto 183/2003, el Servicio de Medio Ambiente y Diversidad de la Diputación Foral de Álava emitió en fecha 21 de mayo de 2010 el Informe Definitivo de Impacto Ambiental correspondiente al Procedimiento de Evaluación Conjunta de dicho Impacto.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, el expediente fue informado por el Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 6/2010, de fecha 22 de diciembre.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2011, de 22 de marzo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente de Plan General de Ordenación Urbana constituye la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Salvatierra vigentes, aprobadas definitivamente por Orden Foral número 133, de 10 de marzo de 1992, y en vigor desde su publicación en el BOTHA número 134, de 13 de noviembre de 1995, y de las 19 modificaciones puntuales aprobadas hasta la fecha. El documento presenta una estructura correcta y cumple, en términos generales, lo especificado en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Segundo.- Descripción y objetivos – El municipio de Salvatierra se encuentra localizado al Este de la Comarca de la Llanada Alavesa y forma parte del Área Funcional de Álava Central y tiene una extensión de 37,8 Km$^2$

Se compone de una estructura urbana nuclear, con un asentamiento urbano residencial principal, Salvatierra; otros cuatro secundarios, Alangua, Arrizala, Egileor y Opakua. La población es de 4.802 habitantes en 2010.

Se posibilita hasta el año horizonte (2019) un aumento de 2.338 viviendas totalizando 4.188 viviendas, que a una media de 2,30 hab/viv resultan 4.188 viv x 2,3 pers/viv = 9.632 pers.

El PTP de Álava Central marca una serie de criterios para el desarrollo de los núcleos pertenecientes a los fragmentos territoriales que componen la Llanada Alavesa, entre lo que destaca el encuadrar las iniciativas de suelos de actividad económica en el entorno de la N-1 y el incluir nuevos desarrollos en el núcleo urbano de Salvatierra como forma de afianzar y consolidar su peso territorial y su jerarquía, como cabecera de comarca, en el sistema urbano de Álava Central.

Agirian egungo lurralde eredua mantentzea proposatu da, baina moldaketa batzuk eginda eta lurzoru urbanizagarria handituta. Horrez gain, hainbat helburu zehatz planteatu dira:

- Lurzoru urbanizaezineko eraikuntza aukerak murriztea. Horretarako, ingurumenak duen balio naturala indartuko da eta natura, baso, geomorfologia eta hidrologia aldetik interesa duten guneak babesteko jarduerak eta ingurumen hondatudun guneetako ingurumena hobetzeko jarduerak ezarriko dira, horiek berreskuratzeko asmoz.

- Erdigune nagusiaren barneko bide egitura diseinatu eta zehaztasunez definitzea, eskualdearekiko loturak bultzatzeko, eta, era berean, herritarren bizi kalitatea bermatzeko. Horretarako, oinezkoen lekualdaketak sustatuko dira, ibilgailuenen aldean.

- Agurain Mendebaldeko Lautadako buru gisa indartzea. Horretarako, honako jarduerak jasan ditzakeen lurzorua beharko da:

· Kirol, aisi eta kulturarako ekipamendua hornitzea, Aguraingo eta eskualdeko herritarren beharrak asetzeko.

· Industria lurzoruaren eskaintza finkatu eta handitzea, garraiobide handien inguruan: N-1 autobidea eta trenbidea.

· Egun garatzen ari diren egoitza lurzoruak finkatzea eta eskaintza handitzea, Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Partzialeko zehaztapenen arabera.

- Erdigune txikiak finkatzea: Opakua, Egileor, Arrizala eta Alangua, nekazaritza eta turismorako eta ingurugirora sartzeko erdigune espezializatu gisa.

Sortuko den erdigunea -adierazitako eskaintza handitu beharko delarik- honako alderdiek osatzen dute:

Aguraingo egungo hiri eredua berriz ezartzea proposatu da. Horretarako, hiriko sare historikoak (alde zaharra) finkatu beharko dira, XX. mendearen amaierako zabalguneak berriz artikulatuko dira eta bi hiri garapen handitan ezartzen diren hazkunde berriak zehaztuko dira:

- Mendebaldean, eraikitako multzoaren erremate berria osatuz, espazio libre eta berdegunedun barne sistema eta guzti, erdigunearen mendebaldeko industrialdeetarako eta udalerriko gainerako inguruetarako trantsizio gisa.

- Hegoaldean, industrialde berria ezarriz N-1 autobiaren (hegoaldean) eta trenbidearen (iparraldean) artean.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB) espedientearen balorazio positiboa egin du. Txosteneko alderdi lotesleen aldeko txostena egin du, ingurumenari, azpiegitura eta zerbitzuei eta etxebizitzarako eta jarduera ekonomikoetarako kokaguneei dagokienez (lehen aipatutakoak), jarraian adieraziko diren baldintzekin:

- Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideetara egokitzea:

Argi eta garbi zehaztu beharko dira gainjarritako baldintza guztiak, araudian duten tartea eta irudikapen grafikoa.

Aurkeztutako dokumentazioaren araudian argi eta garbi adierazi beharko da Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen 10. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 31. artikulua betetzeko betebeharra.

- Etxebizitzarako eta jarduera ekonomikoetarako kokaguneak:

Etxebizitzak Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Partzialeko eta Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideetako irizpideen arabera zenbatzearen aldeko txostena egin da. Bestalde, Egileor, Alangua eta Arrizalako erdigune txikiak onartzeko, honako baldintza hau ezarri da: etxebizitza berrien kopurua ez izatea daudenena baino altuagoa, bestela ezingo baitira aurreikusitako zabalguneak egin.

- Jarduera ekonomikoen lurzorua antolatu eta zenbatzea:

Aguraingo erdigunean jarduera ekonomikoen lurzorurako aurreikusitako zenbatekoari balorazio positiboa egin zaio.

Merkataritza ekipamenduei dagokienez, espedienteko araudian abenduaren 21eko 262/2004 Dekretua aipatu beharko da, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza ekipamenduetarako lurzoruaren sorrera publikoko Lurraldeko Arlo Plana onartzen duena. Horren

El documento propone el mantenimiento del modelo territorial actual con algunos reajustes y ampliación del suelo urbanizable y se plantea varios objetivos específicos:

- Restricción de las posibilidades edificatorias en el Suelo No Urbanizable, potenciando su valor medioambiental natural y estableciendo actuaciones de protección de las Zonas de Interés Naturalístico, Forestal, Geomorfológico e Hidrológico y actuaciones de Mejora Ambiental de las zonas ambientalmente degradadas, con el objeto de conseguir su recuperación.

- Diseño y definición de detalle de la estructura viaria interna del núcleo urbano principal que potencie sus conexiones con la comarca, al tiempo que garantice la calidad de vida de sus ciudadanos, fomentando los desplazamientos peatonales frente al rodado.

- Potenciación de Salvatierra como cabecera de la Llanada Occidental, disponiendo suelo capaz de llevar a cabo las siguientes actuaciones:

· Dotación de un equipamiento deportivo-lúdico-cultural, capaz de satisfacer las necesidades de la ciudadanía de Salvatierra y de la comarca.

· Consolidación y ampliación de la oferta de suelo industrial en el entorno de las grandes vías de transporte: autovía N-1 y ferrocarril.

· Consolidación de los suelos residenciales actualmente en desarrollo y ampliación de la oferta de acuerdo con las determinaciones del PTP de Álava Central.

- Consolidación de los núcleos de menor tamaño: Opakua, Egileor, Arrizala y Alangua como núcleos de especialización agrícola y turística y de acceso al entorno natural.

El núcleo urbano resultante, que incluye la ampliación de la oferta señalada, se configura en los siguientes aspectos:

Se propone la reconfiguración del actual Modelo Urbano de Salvatierra, consolidando los tejidos urbanos históricos (Casco Medieval – Casco Histórico), rearticulando los Ensanches de finales del Siglo XX y definiendo los Nuevos Crecimientos que se configuran en dos importantes desarrollos urbanos:

- Al Oeste, constituyendo un nuevo remate del conjunto edificado, con un sistema interno de espacios libres y zonas verdes que sirven de transición hacia las áreas industriales del Oeste del núcleo y el resto del territorio municipal.

- Al Sur, estableciendo una nueva zona industrial ubicada entre la autovía N-1 al Sur y el Ferrocarril al Norte.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco ha valorado positivamente el expediente presentado, pronunciándose en los aspectos cuyo carácter de informe es vinculante con informe favorable, respecto del medio físico, infraestructuras y servicios, asentamiento residenciales y de actividades económicas, a las que ya se ha hechos referencia, con las condiciones que se resumen a continuación:

- Adecuación a las DOT:

Se deberá especificar de forma inequívoca cada condicionante superpuesto, su regulación en la Normativa y su plasmación gráfica.

La Normativa de la documentación presentada deberá incorporar de manera inequívoca la necesidad del cumplimiento del art. 10 de las DOT y del art. 31 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

- Asentamientos residenciales y de actividades económicas:

Informa favorablemente en cuanto a la cuantificación residencial del núcleo principal según los criterios del PTP de Álava Central y de las DOT y condiciona la de los núcleos menores de Egileor, Alangua y Arrizala a que el número de nuevas viviendas no supere el de las existentes, de manera que resultan inviables las ampliaciones previstas.

- Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas:

Valora favorablemente la cuantificación prevista de Suelo de Actividades Económicas en el núcleo de Salvatierra.

En lo relativo a equipamientos comerciales, el expediente deberá hacer referencia en la Normativa al Decreto 262/2004, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales.

harira, aipatutako LAPeko 14. artikuluko 3. puntuan ("Merkataritza ekipamendu handien lurraldeko araudia") adierazitakoaren arabera, erabileren araubidea Lurraldeko Arlo Planean adierazitako mugen araberakoa izan beharko dela jasoko da proposatutako jarduera ekonomikoko eremuak garatzeko plangintzarako zehaztapen lotesle gisa; horrenbestez, merkataritza ekipamendu posible berrien gehieneko dimentsioak honako parametroei jarraiki arautuko dira: "Hedatutako plataformaren gehieneko azalera garbia: 40.000 m$^2$"; eta "Sabai eraikigarriaren gehieneko azalera: 13.000 m$^2$(t)".

Industria erabileratik egoitza erabilerara aldatu diren lurzoruetan, agiriak, ukitutako eremu bakoitzeko araudi partikularrean, honakoa azaldu beharko du, hirigintzako antolamenduaren baldintza gainjarri gisa: Lurzoruaren kutsaduraren prebentzioari eta zuzenketari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aplikatu behar da, erabilera aldatu baino lehen lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko.

- EAEko ibai eta erreka bazterren antolamendurako LAPera egokitzea (Mediterraneoko isurialdea):

Araudian 0. maila eta 1. maila gisa kategorizatutako ibai tarteetarako eraikuntzen urruntzeak adierazi beharko dira, lurzoru mota bakoitzerako.

Agiri grafikoek modu zuzenean adierazi beharko dituzte hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian burutzen diren arroekiko urruntze horiek guztiak. Zehazki:

Hiri lurzoruan (garatutako eremuetako ertzak) LAPeko F.3 idatz zatian azaldutako eraikuntzako urruntze minimoak bete behar dira. Lurzoru hori zeharkatzen duten ur lasterrak tartekatuta daudenez, honelaxe zehatz ditzakegu: 10 m Aguraingo erdigunea zeharkatzen duten ur lasterren ertzetan, (0 eta 1. mailak) bideratze lerroa zehaztuta dagoen tarteetan. Isurketetan edo hemen aipatzen diren ur lasterrak baino txikiagoak direnetan, Urei buruzko Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Hirigintzako Garapen Berrietarako Potentziala duten Eremuetako Ertzak (hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailka daitezkeen nekazaritza eremuko ertzetan ere aplikagarria): 5 m-ko urruntzea urbanizaziorako eta 15 m-koa eraikuntzarako, 0. mailan; Agurain, Alangua eta Egileorreko erdiguneetan aplikagarria.

Agirietan adierazi beharko da urruntzeak ibilgu publikoko mugatze lerrotik edo gehieneko uholde arruntaren lerrotik neurtuko direla, eta ez ardatzetik.

Uholdeak izateko arriskua duten eremuetan, aipatutako urruntzeez gain, Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideetan (8. kapitulua, 6.8.8.5 idatz zatia) eta EAEko ibai eta erreka bazterren antolamendurako LAPeko E.1 idatz zatian (mediterraneoko isurialdea) adierazitako irizpideak bete behar dira. Halaber, proposatutako erabilerak eta antolamendua lurzorua erabiltzeko irizpideetara egokitu beharko dira, URA-Uraren Euskal Agentziak ezarritako uholde arriskuaren mailaren arabera.

- Kultura ondarearen arloan:

Espedienteak honako zehaztapen lotesleak jaso beharko ditu:

Done Jakue bidea monumentu multzoko kategoria duen kultura ondasun gisa kalifikatuta dago, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren arabera (otsailaren 11ko EHAA). Aipatu ez diren elementuak eta horiei emandako babesa katalogoan adierazi beharko dira.

Katalogoan ezarritako babes kategoriek eta Plan Orokorreko Hirigintza Arau Orokorretako laugarren tituluan adierazitakoek dituzten aldeak zuzendu egin beharko dira.

Agiriak, Sorginetxe monumentu megalitikorako aurreikusitako araudian, bere aitorpenean jasotako Babes Araubideak ezartzen dituen loturak jaso beharko ditu, eta, era berean, bere mugak adieraziko ditu.

Sorginetxeko trikuharria Kalifikatutako Kultura Ondasun gisa agertu behar da katalogoan.

- Nekazaritza Garapenaren arloan:

Espedientean kontuan hartuko beharko da:

Abeltzaintzako ustiategi berriei buruzko araudia aplikatu behar da:

En este sentido, en cumplimiento de lo señalado en el punto 3º del Artículo 14 del citado PTS "Regulación Territorial de los Grandes Equipamientos Comerciales" se incluirá como determinación vinculante para el planeamiento de desarrollo de los ámbitos de Actividades Económicas propuestos, que el régimen de usos será acorde con las limitaciones señaladas en el PTS; por lo que el dimensionamiento máximo de los posibles nuevos equipamientos comerciales habrá de ser regulado con arreglo a los siguientes parámetros: "Superficie neta máxima de plataforma explanada: 40.000 m$^2$"; y "Superficie máxima de techo edificable: 13.000 m$^2$(t)".

En los suelos con cambio de uso de industrial a residencial, el documento deberá introducir en la Normativa Particular en cada ámbito afectado, como condición superpuesta a la ordenación urbanística, la aplicación de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, con el fin de conocer y controlar la calidad del suelo antes de proceder a ejecutar el cambio de uso.

- Adecuación al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (vertiente mediterránea):

La Normativa deberá indicar los retiros edificatorios para los tramos de ríos categorizados como de Nivel 0 y Nivel 1, para cada clase de suelo.

La documentación gráfica deberá representar de manera correcta todos los retiros respecto a cauces en Suelo Urbano y Urbanizable. Concretamente:

En el Suelo Urbano (Márgenes de Ámbitos Desarrollados) deben cumplirse los retiros mínimos de edificación definidos en el apartado F.3 del PTS que, dada la tramificación de los cursos de agua que atraviesan este suelo, se concretan en: 10 m en márgenes de cursos de agua (Niveles I y 0) que atraviesan el núcleo de Salvatierra, en aquellos tramos en los que la línea de encauzamiento se encuentra definida. En escorrentías o cursos menores a los anteriores, se aplicará lo establecido en la Ley de Aguas.

Márgenes en Ámbitos con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos (aplicable también a márgenes en Ámbito Rural objeto de reclasificación urbanística como Suelo Urbano o Urbanizable): un retiro de 5m para la urbanización, y de 15 m para la edificación, en el Nivel 0, aplicable a los núcleos de Salvatierra, Alangua y Egileor.

Se deberá plasmar en la documentación el requisito de que los retiros se medirán desde la línea de deslinde o de máximas avenidas ordinarias del cauce público, y no desde el eje.

En aquellas zonas sensibles desde el punto de vista de riesgo de inundación, además de los retiros señalados, han de cumplirse los criterios señalados en las Directrices de Ordenación del Territorio (Capítulo 8, apartado 6.8.8.5) y en el apartado E.1 del PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (vertiente mediterránea), debiendo adoptarse los usos y ordenación propuestos a los criterios de uso del suelo en función de su grado de inundabilidad establecidos por la Agencia Vasca del Agua – URA.

- En materia de Patrimonio Cultural:

El expediente deberá recoger las siguientes determinaciones vinculantes:

El Camino de Santiago está calificado como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental según Decreto 14/2000, de 25 de enero (BOPV 11 de febrero). Deberán incorporarse al Catálogo los elementos omitidos así como la protección otorgada a los mismos.

Deberá ser corregida la falta de correspondencia entre las categorías de protección establecidas en el Catálogo y las señaladas en el Título Cuarto de las Normas Urbanísticas Generales del Plan General.

El documento debe recoger en su normativa para el Monumento megalítico calificado de Sorginetxe las vinculaciones que el Régimen de Protección incluido en su declaración establecen, señalando igualmente su delimitación.

El dolmen de Sorginetxe debe figurar en el Catálogo como Bien Cultural Calificado.

- En materia de Desarrollo Rural:

El expediente deberá tener en cuenta:

Aplicación de normativa relativa a las nuevas explotaciones ganaderas:

Abeltzaintzako ustiategi berriek indarreko araudia bete beharko dute:

515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintza ustiategien arau teknikoak, higiene-osasun arauak eta ingurumen arauak ezartzen dituena.

165/1999 Dekretua, martxoaren 9koa, ingurumena babesteko Legean jasotzen den jarduera lizentzia lortzeko salbuetsita dauden jardueren zerrenda ezartzen duena, jarduera lizentziarik behar ez duten ustiategietarako. Irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren bidez (hirugarren xedapen gehigarria) aldatua.

Dauden abeltzaintza ustiategiei buruzko araudia aplikatu behar da:

Dauden abeltzaintza ustiategiek jarduera lizentzia lortu behar badute, 15 urteko epea dute irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko. Distantziei eta kokapenari buruzko arauak ez dira aplikatutako, aipatutako Dekretuan adierazi bezala.

Laugarrena.- URAren txostenean ez da argi adierazten ea baliabide hidrikoak nahikoak diren ala ez proposatutako plangintza osorik betetzearen ondoriozko beharrei aurre egiteko, erdigune nagusiari dagokionez. Arabako Foru Aldundiko Uren Zerbitzuaren ondorengo txostenak dioenez, aurkeztutako datuen arabera, egun ez dago bermatuta Planean aurreikusitako etxebizitza guztietarako behar den ura hornituko denik.

Hala ere, Aguraingo Udalak Uren Zerbitzuaren txostenean azaldu ez diren beste baliabide hidriko batzuk daudela jakinarazi zion Arabako Hirigintza Batzordeari.

Goian adierazitakoaren ondorioz, sektorizatutako egoitzako nahiz industriako lurzoru urbanizagarriaren sailkapena -agirian adierazitakoa- planteatu beharra dago. Horren harira, adierazi beharra dago Hirigintza Jarduerarako 20/21 Eremua (Opakuako errepidea) eta Hirigintza Jarduerako 28 Eremua (Litutxipi ipar ekialdea) ez direla lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu behar, baizik eta lurzoru urbanizaezin gisa. Izan ere, gero azalduko den bezala, ez dator bat foru errepideen funtzionaltasunarekin.

Eremu horietaz gain, Hirigintza Jarduerarako 38 Eremua (Ugarte) izenekoan lurraldea ekialderantz hedatuko da, egungo hazkundea errematatzen duen eta gainera lurraldearen kolonizazioa hegoalderantz prestatzen duen ingurabidetik harago. Proposamen horrek lurzoruaren kontsumo berria eragiten du eta ez dator bat hazkundeari eusteko hiri estrategiarekin. Horrenbestez, azaldu den bezala ura hornitzeko arazoak daudenez, Udalak erabaki beharko du eremu hori osatzen duten lursailek azkenean zein sailkapen izan behar duten.

Baliabide hidriko nahikorik ez dagoenez, Hirigintza Jarduerarako 16 Eremua (Mendebaldeko zabalkundea, programazioaren bigarren etapan jasoa) eta Hirigintza Jarduerarako 29 Eremua (N-1 industriala) ezin dira sektorizatutako lurzoru urbanizagarriak izan, horien handitasunaren ondorioz. Hori dela eta, Udalak adierazi beharko du eremu horietako lursailak zein lurzoru motatan sartu beharko diren.

Hirigintza Jarduerarako 47 (Galzar iparraldea) eta 13 (Madura) Eremuei dagokienez, hazkunde murritzak direnez, sektorizatutako lurzoru urbanizagarri izaten jarrai dezakete, Hirigintza Jarduerarako 36 Eremua (araztegia) eta Hirigintza Jarduerarako 35 Eremua (Oriamendiko parkea) bezala. Horiek sistema orokorren sarean sartuko dira eta ez dute baliabide hidrikorik kontsumitzen.

Bosgarrena.- Planeko proposamenek foru titulartasuneko bide sareari nola eragiten dioten aztertuz gero, Herri Lan eta Garraio Sailak, 2011ko martxoaren 17an egindako txostenean, honako zuzenketak egin behar direla adierazi du:

- Agiriko plano guztietan argi eta garbi adierazi eta nabarmendu beharko dira A-2128, A-3100 eta A-3016 errepideak, egun dauden moduan, ekainaren 16ko 11/2008 Foru Arauaren bidez onartutako Errepideen Foru Sarearen Katalogoaren arabera. Azpimarratu egin beharko da ez direla hiri bideak, agiriak nahi duen bezala (“hiri bide nagusiak” izendatu baititu), baizik eta Errepideen Foru Sareko errepideak, bide komunikazioen sistema orokorreko parte diren aldetik.

Las explotaciones ganaderas de nueva instalación deberán cumplir la normativa vigente:

Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.

Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de licencia de actividad prevista en la Ley de Protección del Medio Ambiente, para explotaciones que no requieran licencia de actividad. Modificado por Decreto 515/2009, de 22 de septiembre (Disposición Adicional Tercera).

Aplicación de la normativa relativa a explotaciones ganaderas existentes:

Las explotaciones ganaderas existentes que vayan a obtener la licencia de actividad tienen un plazo de 15 años para adaptarse a las condiciones establecidas en el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, no siéndoles de aplicación las normas relativas a distancias y ubicación, tal y como establece el mencionado Decreto.

Cuarto.- Si bien en el informe de URA no existe un pronunciamiento claro acerca de la suficiencia o no de recursos hídricos para hacer frente a las necesidades que se derivarían de la total ejecución del planeamiento propuesto en lo que al núcleo capital se refiere, el posterior informe del Servicio de Aguas de la Diputación Foral de Álava concreta que, en base a los datos que aporta, no está garantizado a fecha de hoy el abastecimiento de agua necesario para el total de viviendas previstas por el Plan.

No obstante, el Ayuntamiento de Salvatierra expuso ante la Comisión de Urbanismo de Álava la existencia de otros recursos hídricos que no están contemplados en el informe del Servicio de Aguas.

Lo arriba expuesto lleva necesariamente a plantearse la clasificación de suelo urbanizable sectorizado, tanto residencial como industrial, que se contiene en el documento. En este sentido ha de señalarse que los sectores AIU 20/21 “Carretera de Opakua” y AIU 28 “Litutxipi Noreste” han de ser desclasificados como suelo urbanizable y pasar a ser clasificados como suelo no urbanizable, como más adelante se dirá, por su incompatibilidad con la funcionalidad de las carreteras forales.

